

# Puntu interesgarriak

## Puntos de interés



**A** **Urumea Ibaia.** Nafarroan jaio eta Goizueta eta Aranoko udalerrietatik pasa ostean Gipuzkoako lurretan sartzen da Donostian itsasoratzeko, Hernani zeharkatu ondoren. Ibilbide honek Urumeak Hernanin duen gune ezezagunetarikoa bat erakusten digu, kalitate bikaineko ur hauen albotik igarotzeko aukera emanez.

**Río Urumea.** Nace en Navarra y tras atravesar tierras de Goizueta y Arano se adentra en Gipuzkoa por Hernani hasta su desembocadura en San Sebastián. Este recorrido nos muestra una zona muy bella y poco conocida del cauce del río a su paso por Hernani, nos invita a disfrutar de un paseo por sus riberas y a apreciar la buena calidad de sus aguas.



**B** **Oberango pagadia.** Pagoz osaturiko baso itzaltsua osatzen du Oberangoak. Euskal Herriko gune askotan baso-landaketek pagoaren lekua hartu duten arren, Oberanen oraindik ere egoera oso onean kontserbatzen den pagadia aurki dezakegu eta duela 100 urte arte Hernaniko lurretan aurki genitzakeen pagoz osaturiko baso zabal eta ederrei buruzko ideia bat ematen digute.

**Hayedo de Oberan.** Bosque sombrío conformado por un gran número de hayas de gran porte. A pesar de que en gran parte de Euskal Herria los hayedos han sido sustituidos por otras plantaciones, el de Oberan se ha conservado en muy buen estado y nos sirve de muestra para hacernos a la idea de cómo eran hace aproximadamente cien años los bosques de estos parajes cercanos a Hernani.



Hernaniko

## Ibilbide sarea

Red de senderos de Hernani

→ 10,7 km. ⌚ 4:00 h. 📈 800 m.

Oberango ibilbideak Hernani, Donostia eta Errenteriako udalerrien mugak zeharkatzeko aukera emango digu, Urumeako bailaran oraindik ere aurki daitezkeen ibaiertz ederretaz eta pagadi zabaletaz gozatzeko parada izango dugularik.

Este recorrido nos brinda la oportunidad de caminar por los límites entre Hernani, Donostia y Errenteria disfrutando de un bonito tramo de la ribera del Urumea, además de discurrir por extensos bosques de hayas.

### Hernaniko ibilbide sarea osatzen duten ibilbideak:

- |    |               |                   |
|----|---------------|-------------------|
| 1  | Santa Barbara | HIU-1             |
| 2  | Sagardotegiak | HIU-2             |
| 3  | Oindiri bira  | HIU-3             |
| 4  | Urruzuno      | HIU-4             |
| 5  | Epele         | PR-Gi 1002        |
| 6  | Ereñotzu      | SL-Gi 1002        |
| 7  | <b>Oberan</b> | <b>PR-Gi 1001</b> |
| 8  | Larregain     |                   |
| 9  | Usokori bira  |                   |
| 10 | Latse         |                   |
| 11 | Aparrain      |                   |



### Informazio praktikoa

Gaur egun ibilbide hau, bere osotasunean, marka txuri-horiz seinalatzatuta dago. PR-Gi 1001 izenarekin balizatuta dago.

### Información práctica

A fecha de hoy este recorrido está perfectamente seinalizado con marcas blancas y amarillas, correspondientes al tipo PR (Pequeño Recorrido) y en las balizas está identificado como PRGi-1001.




**Natura errespetatu ezazu,  
denon ondarea da**

**Respetar la naturaleza, es  
patrimonio de todos**

# Nondik hasi Punto de partida

Ibilbideak Hernani eta Goizueta herriak lotzen dituen GI-3410 errepidearen 8,7 kilometroan dagoen Ugaldetxo taberna-jatetxean du hasiera. Urumea ertzeko aisialdiguneak eta bertan dagoen frontoia dela eta, uda inguruan jende asko biltzen duen tokia da. Inguruan ez dugu aparkatzeko lekua aurkitzeko zailtasunik izango.

El recorrido parte del bar-restaurante Ugaldetxo situado en el kilómetro 8,7 de la carretera GI-3410 que une Hernani con el pueblo navarro de Goizueta. Se trata de un lugar muy concurrido en época estival por su bonita zona de recreo junto al río Urumea y el pequeño frontón cercano. No nos costará mucho aparcar en sus alrededores.



# Ibilbidearen deskribapen zehatza Descripción del recorrido

**0km**  
0h 0m  
UTM ED50 30T GFS X=587372 Y=4786476

**Ugaldetxo Ugaldetxo**  
Ibilbidea Ugaldetxo jatetxean hasiko dugu. Ibaia eta jatetxearen artean doan pista hartu eta 250 metrota bidebanatze bat aurkituko dugu.

El recorrido comienza en el restaurante Ugaldetxo. Tomaremos la pista que sale entre el restaurante y el río. A 250 metros llegaremos a una bifurcación.

**0,2km**  
0h 04m  
UTM ED50 30T GFS X=587550 Y=4786562

**Bidebanatzea Bifurcación**  
Bidebanatze hontan eskuinetara egingo dugu erreka zeharkatuz. Pista honi jarraituz, 300 metrota bideak ere bitan egiten du.

En esta bifurcación tomamos a la derecha, pasando por encima de un riachuelo. A unos 300 metros más adelante, la pista se vuelve a bifurcar.

**0,6km**  
0h 12m  
UTM ED50 30T GFS X=587844 Y=4786805

**Bidebanatzea Bifurcación**  
Bidebanatze hontan beriz ezkerreko bidea hartuko dugu, aldapa gora. Hemendik 10 bat minututara, bideak bitan egiten du berriro ere.

En esta bifurcación sin embargo deberemos coger la pista que por la izquierda sube ligeramente. De aquí a 10 minutos aproximadamente llegamos a un cruce.

**1,5km**  
0h 22m  
UTM ED50 30T GFS X=588136 Y=4786627

**Bidegurutzea Cruce**  
Oraingoan ere, ezkerreko bidea hartuko dugu aldapa gora. Pista hau jarraituz, 350 metrota, erreka baten gainetik pasa ahala, bidebanatze bat topatuko dugu.

Ahora también tomaremos la pista que asciende por la izquierda. Siguiéndola, a unos 350 metros, nada más pasar por encima de un riachuelo, volvemos a encontrar una bifurcación.

**1,9km**  
0h 27m  
UTM ED50 30T GFS X=588344 Y=4786817

**Bidebanatzea Bifurcación**  
Oraingoan eskuineko bidea hartuko dugu. Bide hau pixkanaka Urumea ibaiaren ubidera jaitsiko da. Ondoren, igoera txiki baten ostean, pista behera egiten du eta bailara txiki bat inguratzen du, bidean erreka bat zeharkatuz. Gero, aurreago baserri bat topatuko dugu.

En esta ocasión tomaremos el camino de la derecha. Esta pista poco a poco va descendiendo hacia el cauce del río Urumea. Más adelante, tras un breve ascenso, la pista vuelve a bajar un poco para circunvalar por la izquierda una pequeña vaguada y atravesar un riachuelo. En breve, más adelante nos encontramos con un caserío.

**3,0km**  
0h 50m  
UTM ED50 30T GFS X=588650 Y=4786265

**Desbideratzea Desvío**  
Baserrira iritsi baino 100 metro lehenago, ezkerretara, aldapa gora doan bidea hartuko dugu. Hemendik aurrera, beti gora eginez, aldapa gogor bati ekingo diogu zuzen, pista batetik hasieran eta bidezidorretik beranduago (ordubete inguru). Igoeraren azkeneko zatia konifera landaketa baten azpitik egingo dugu, bide ez oso argi batetik. Zati honetan aurkituko ditugun mugarriek bidea jarraitzen lagunduko digute gaina hartu arte. Bidea bere garaiera handienera iristen denean, Saratzeko gailurra gure eskuinean utziko dugu, metro gutxiatar.

Cien metros antes de llegar al caserío, tomaremos una pista que asciende fuertemente por la izquierda. De aquí en adelante, ascenderemos fuertemente y siguiendo la misma dirección durante poco más de una hora. Lo que al principio es pista, más adelante se convertirá en un sendero. El último tramo de ascenso discurre a la sombra de un bosque de coníferas, por sendero poco definido pero en el que unos mojones nos acompañarán hasta el punto más alto del recorrido en el que la cima de Saratze la dejaremos a escasos metros a nuestra derecha.

**4,4km**  
1h 55m  
UTM ED50 30T GFS X=588959 Y=4785845

**Saratzeko gailurra Cima de Saratze**  
Puntu honetatik aurrera, gainez gain joango gara pagadi baten azpitik. Bidean zehar mugarriek osatzen duten lerroa jarraituko dugu. Mugarri guztiak zenbakituta daude. Hori baliatuko gara: hau dela eta adi egon beharko dugu MP121 bezala markaturiko mugarrian bidearen norabidea guztiz aldatzen baita.

En adelante seguiremos siempre por el cordal, a la sombra de un precioso hayedo y siguiendo durante un gran tramo de nuestro recorrido la línea de mojones. Cada mojón está numerado consecutivamente. Nos valdremos de dicha numeración: así, debemos estar atentos al llegar al mojón MP121 ya que cambiamos de rumbo totalmente.

**5,0km**  
2h 10m  
UTM ED50 30T GFS X=590384 Y=4786081

**MP121 mugarria Mojón MP121**  
Esan dugun bezala, mugarri honetan norabidea erabat aldatzen da: guk ezkerretara aldapa behera egin beharko dugu, mugarrien lerroari oraindik ere jarraituz. Mugarrien lerro hau ia hogei minutuz jarraituko dugu tontor batera heldu arte. Tontorraren ondoan MP133 mugarria dago.

Tal y como hemos dicho, en el mojón MP121 cambiamos de dirección para tomar una cuesta que descende fuertemente por la izquierda. Seguimos durante aproximadamente 20 minutos la línea de mojones hasta el numerado como MP133 próximo a una cima.

**5,7km**  
2h 30m  
UTM ED50 30T GFS X=590164 Y=4786779

**MP133 mugarria Mojón MP133**  
Mugarrien lerroa oraindik ere beste 20 minutuz jarraituko dugu, MP147 mugarria iritsi arte.

Continuamos durante otros 20 minutos la línea de mojones hasta llegar al MP147.

**7,0km**  
2h 55m  
UTM ED50 30T GFS X=589513 Y=4787498

**MP147 mugarria Mojón MP147**  
Mugarri hau pasa eta zenbait metro aurrerago bidebanatze bat aurkituko dugu. Hemen ezkerreko bidea hartuko dugu. Baso ilun batean sartu eta bide lau batetik jarraituz, 15 minutu beranduago ezkerretik datorren pista bati muzin eginez, aurrera jarraituko dugu, segituan beste bidebanatze batera iritsi arte.

Nada más rebasar este mojón tenemos una bifurcación: tomaremos el camino de la izquierda. Nos adentraremos en un bosque sombrío por el que llanearemos durante unos 15 minutos. Una pista se nos incorpora por la izquierda. Seguimos de frente hasta llegar en breve a una bifurcación.

**7,8km**  
3h 10m  
UTM ED50 30T GFS X=588739 Y=4787805

**Bidebanatzea Bifurcación**  
Eskuinera, aldapa gora Malbazarren doan bideari muzin eginez, ezkerretara, aldapa behera ateratzen den bidea hartuko dugu. Berehala, pinudi batean sartu eta metro gutxiataradi egon behar dugu: bidegurutze bat, ez oso nabarmena, aurkituko baitugu.

Haciendo caso omiso a la pista que por la derecha asciende a Malbazar, tomamos la pista que descende por la izquierda. En breve nos adentraremos en un pinar y a los pocos metros de entrar en él, estaremos atentos a un cruce poco evidente.

**8,1km**  
3h 16m  
UTM ED50 30T GFS X=588546 Y=4787650

**Bidegurutzea basoan Cruce en el bosque**  
Bidegurutze honetatik eskubira hartuko bagenu Arregietako gainera igoko ginatke, baina guk aurrera jarraituko dugu pista eta laister eroritako baserri baten albotik igaro beharko dugu. Bide honek aurrera jarraituko du sigi-sagan, aldapa handiarekin behera eginez. Sigi-saga amaitzean, pista zabal batekin egingo dugu topo.

En este cruce poco evidente, por la derecha iríamos en ascenso hasta la cercana cima de Arregieta, pero nosotros, sin embargo, seguimos de frente por pista clara, para pasar pronto, un poco más abajo, junto a un caserío en ruinas. Desde aquí el camino descende la ladera fuertemente en zig-zag hasta llegar a una pista ancha.

**9,1km**  
3h 32m  
UTM ED50 30T GFS X=588059 Y=4787074

**Pista Pista**  
Pistarekin topo egitean ezkerreko aldapa behera hartuaz, Aparraingo atsedenekura iritsiko gara.

Tomaremos la pista por la izquierda que en descenso nos lleva pronto hasta el área recreativa de Aparrain.

**9,4km**  
3h 37m  
UTM ED50 30T GFS X=588192 Y=4786843

**Aparrain Aparrain**  
Atsedenekua inguratu ostean, pista zabaldu egiten da eta pixkanaka behera doa. Beti behera eginez, bide honek, ibilbidearen hasieran hartu dugun bidearekin bat egingo du.

Rodaremos totalmente la borda de Aparrain. La pista se ensancha y descende. Desde aquí, siempre en descenso, por pista y sin pérdida, llegaremos a la primera bifurcación del recorrido.

**10,5km**  
3h 57m  
UTM ED50 30T GFS X=587550 Y=4786562

**Bidebanatzea Bifurcación**  
Hemendik, bide ezaguna dugu, eta minutu gutxira hasierako puntura iritsiko gara.

Ya por camino conocido, en pocos minutos llegamos al punto de partida del recorrido.

**10,7km**  
4h 00m  
UTM ED50 30T X=587372 Y=4786476

**Ugaldetxo Ugaldetxo**